



3 POLITIKA

EHBilduk aldaketarekin jarraitu nahi du

EHBilduk EAJ eta Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle taldeari legealdi honetan elkarrekin lan egin eta aurreko legealdiko aldaketei jarraitzea ematea proposatu diela jakitera eman du. Koalizio abertzaleak ez du oraindik fruiturik lortu baina larunbatera arte atea zabalik dituela azpimarratu du. Akordiora iristen ez badira oposizioan izango da taldea.

6 KIROLA

Zazpi lasarteoriatar Zarauzko triatloiko irteeran, bihar

Bihar Zarauzko Triatloia lehiatuko da eta bertan zazpi herritarrek parte hartuko dute: Saiatuz taldeko sei triatleta eta Maria Mendibe. Saiatuz taldeko lagunak abenduan hasi ziren erdi distantziako proba hau prestatzen eta guztientzat denboraldiko probarik nagusia da. Ez dira lehen postuetan ibiliko baina helburu argiak dituzte, probaz gozatu eta helmugara iristea.



Elikadura jasangarria aztertzen

Landaberri eta Sasoetako haurrek gai hori landu dute urtean zehar

Herriko bi ikastetxeetako 1.300 ikasleek aztertu dute elikadura jasangarriaren gaia aurten, Agenda 21 programaren baitan. Gai hori landu duten bigarren urtea izan da jarraian. Lan handia egin ostean, emaitzak plazaratu zituzten joan den asteazkenean, udal ordezkarien aurrean, udaletxeko pleno aretoan.

Pil-pilean dagoen gaia da elikadura jasangarriarena, eta gure herriak eta bertako biztanleek badute zer hobetu alor horretan, Landaberri eta Sasoetako ikasleek joan den asteazkenean azaldu bezala. Urtean zehar zinegotzienak diren eserlekuetan eroso jarri, mikrofonoa piztu eta lanketaren ondorioak plazaratu zituzten ikasleek, irakasle eta udal ordezkariak.

Udalari egindako proposamenen artean, bertako baserritarrei euren produktuak saltzeko laguntza ematea azoka egokiak prestatuz eta daudenak mantenduz, herriko azoka eta denden produktuek kontsumoa sustatzea edota udal baratza ekologikoak sortu eta herritarren eskura jartzea aipatu zituzten ikasleek. Adi entzun zituzten kontu horiek denak Pablo Barrio alkateak, Boris Nogales Hezkuntza zinegotziak eta Xabier Goitia teknikariak.

LH 1, 2 eta 3. zikloko ikasleek hartu dute parte Agenda 21 egitasmoan. Elikagaien piramideak zeintzuk osagai dituen, zer nolako gosari eta hamaiketakoak egiten dituzten edota inguruko nekazal errealitatea zein den aztertu dute.



Ekitaldia amaitu bezain laster, talde argazkia atera zuten ikasle, irakasle eta udal ordezkariak.

Ondorio nagusiak

Luze eta zabal hitz egin zuten ikasleek lanketa prozesuan zehar ateratako ondorioez. Konturatu dira, esaterako, hamaiketakoan fruta gehiago sartu behar dutela eta hondakin gutxiago sortu.

Era berean, bertako produktuen aldeko apustu garbia egin behar dela azaldu zuten pleno aretoan, eta lagundu egin behar zaiela gisa horretako produktuak ekoizten dituzten nekazariak, produktuak saltzeko aukera gehiago emanez herrian eta kontsumitzaileek produktu horiek gehiago erositzen.

Azken puntu horrek dituen abantaila ere hitz egin zuten Landaberri eta Sasoetako gaztetxoek. Ikasi dute garaiko eta bertako produktuak osasuntsuagoak, freskoagoak eta zapoetsuagoak direla. Horiek gure herriraino garraiatzen ere askoz azkarragoa denez, ingurumenarekiko askoz onuragarriagoa dela nabarmendu zuten asteazken goizean egindako ekitaldian.



Ikasturtean zehar landutakoa plazaratu zuten Landaberri eta Sasoetako ikasleek.

Proposamenak Udalari

Ikasleek kontatutakoa adi-adi entzun ostean, udal ordezkariak hartu zuten hitza, gaztetxoek egindako proposamenei erantzuteko.

Inguruko nekazariak eman beharreko laguntzari dagokionez, Pablo Barrio alkateak esan zuen Udalak "ahal duen guztia" egiten duela hori bermatzeko. Era berean, zehaztu zuen herriko merkataritza sustatzea udalaren kezka nagusietako bat dela. Bertako

produktuak kontsumitzea "oso garrantzitsua" dela ere ohartarazi zuten ikasleek, ekoizle eta erosleen arteko aldeak ahalik eta txikiena izan behar duela nabarmenduz.

Hondakinak berrerabiltzearen inguruan ere aritu zen alkatea, eta zenbait aholku eman zituzten haurrei. Esaterako, erosketak egiterakoan etxetik eramateko poltsak.

Ikasle talde batek amaiera ezin hobea eman zion ekitaldiari, bertso bat abestuz.

HIPODROMO ETORBIDEA www.hipodromoetorbidea.com
hipodromo@muriasgrupo.com
Tel.: 943 372400

Eraikitzen hasten gara!
DEITU

Neure kabuz



Gorka Alvarez
Ezagutu, jardun eta gozatu

Uda gainean dugunean, garai honek aisialdirako eskaintzen dizkigun aukerak biderkatzen dira. Eguraldi onak eta oporraldi luzeek erraztu egiten dute kirol ezberdinak praktikatzeko.

Urtean zehar "ohiko" kirolak izaten dute presentzia handia gure haur eta gazteen kirol ohituretan. Uda, nolabait frogara edo esperimenduzko garaia dela jakinda, ezinbestekoa deritzot gazteek eta hurrek bereziki euren lehen esperientziak izateari kirol "berrietan." Udak, naturarekin kontaktu zuzena eskaintzen duten kirolerako erraztasunak ematen ditu eta hori probestu behar da. Askotan, gure txikiak ezagutzen ez dituztenak ezagutu, praktikatu eta gozatzeko.

Ene ustetan, urtean zehar egin ez dituztenak egiteko garai ezin hobea da, edota urtean zehar aritu diren kirolerako trebatzeko garaia, baina ingurunez aldatuta. Momentu ona, lehen aldiz, piragua ikastaro bat egiteko, mendi orientazio ibilbide bat burutzeko edota haurrentzako oinarriko eskalada nahiz urpekaritza saioen bat egiteko. Helburua noski, ahalik eta kirol ekintza gehien ezagutzeko, ingurune desberdin batetan eta egunerokotasunean murgilduta gauzkatzen kiroleratik urrun.

Gure belaunaldiko asko geratu gara, "ohiko" kirolen hirukian harrapatuta. Egun eskaintzen diren aukerak baliatu eta haurra esperientzia berrietara hurbiltzeko garaia ezin hobea da datorrena. Nork daki etorkizunean gurasoek irekitako ate hori, bizitzan zehar gozamenerako asialdi aukera bihurtzen den edota kasuan kasu, herrian hainbat kirolarirekin gertatu bezala, kirol ez horren entzutetsu hauek bizimodu bilakatu daitezkeen. Ezin ahantziko baitugu, Lasarte-Orian kirol ez horren entzutetsuetan goi mailako kirolariak ditugula eta izan ditugula. Horiei noski, norbaitek irekiko zien frogarako aukera, disfrutatzeke aukera, esperientzia berria bizitzeko aukera. Azken batean, kirola norberak bere burua ezagutzeko oso tresna baliagarria da. Beraz uda honetan, ezagutu, jardun eta gozatu.

Zorion agurrak



Nahia
Mila muxu pottolo maite zaitugun guztion partez.



Naiara
Zorionak printzesa!!!!!! Zazpi txokomarrubizko muxuak aitatxo eta amatxoren partetik



Garazi
ZORIONAK printzesa, egun zoragarria pasa eta ZAZPI muxu handi Elene, Aizpea, amatxo eta aita-xoren partetik.



Begoña
ZORIONAK printzesa. Egun zoragarria pasa ezazu Garazi, Elene, Aizpea eta aita-xoren partetik. Muxu handi bat.



Nora
Zorionak Sorgintxo!! lada 2 urte. Pila muxu familiaren partez. Asko maite zaitugu.



Ariane
Zorionak sorgintxo 6 muxu erraldoi, Katixa, aitatxo eta amaren partetik!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Pineda (Salou ondoan), apartamentu bat alokatzen da, 4-6 pertsonantzako. Los Juncos urbanizazioan. (Haize gokituairekin eta Port Aventura ondoan) 605 70 88 17.

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak eta garbiketarako egiteko pertsona eskaintzen da. 648 19 84 56.
- Esperientzia eta erreferentziak dituen emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak, ume edota nagusien zaintzan lan egiteko. 663 99 05 52.
- Batxilergoko ikasle euskaldunak, laguntza klaseak emango ditu udan LH eta DBHko ikasleei. 627 64 90 53.
- Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta

etxeko lanak eta garbiketarako egiteko pertsona eskaintzen da. 648 19 84 56.

- Euskara, ingeleza edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 76 60 68.

- Emakumea eskaintzen da orduka jende edadetu eta haurrak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. 620 52 80 53

Lan-eskaintza

- Ile-apaintzaile bat behar dut lan egiteko Lasarte-Orian. 615 78 11 16 Maite.

Bestelakoak

- Pisu txikia, baju bat ala egongela bat alokatu nahi dut Lasarte-Orian. Ikaslea naiz. 650 50 19 10.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Luka Villarroya Perez, ekainaren 4an.
- Maialen del Hierro Sanchez, ekainaren 2an.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 12 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 13 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 14 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 15 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astearte, 16 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 17 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 18 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Ostirala, 19 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 20 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 21 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 22 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astearte, 23 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 24 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Eloegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak


Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz lagutzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informazioa:
Xabier Amadoz

POLITIKA

“Aldaketari jarraipena” eman nahi dio EHBilduk

Oposizioan egongo da koalizioa, akordiorik ezean

Azken lau urteetan gobernatzeko eran “aldaketa nabaria” eman dela iriztita, bide horretatik jarraitu nahi du koalizio abertzaleak. 2011n EAJ eta LOHP izan zituen bidelagun, eta hori proposatu die orain EAJri berari eta Lasarte-Oriak Ahal Du alderdiei. Bilerak egin arren, “nahi izandako fruituak” ez ditu lortu EHBilduk orain arte.



Irudian, datorren legealdian EHBilduren udal taldea osatuko duten lau kideak.

TXINTXARRI

Bihar jakingo du herriak datozen lau urteetan alkatea nor izango den. “2011n hasitako bideari jarraipena” eman nahi dio EH Bilduk; EAJ eta Lasarte-Oriak Ahal Du alderdiekin bildu da eta orain artean ados jarri ez badira ere, “aldaketa emankorren bidez” jarraitzeko asmoa azaldu du koalizioak: “Akordio batera heltzea ez da erraza izango, baina ez gara gu izango aukera horri ateak itxiko dizkiogunak”, nabarmendu zuen asteazkenean emandako prentsaurrekoan.

“Oposizioan alderdi bozkatuena garen heinean, gure hautagaia Pablo Barrio izango da. Zentzu horretan,

Lasarte-Oriak Ahal Du eta EAJri eskatu nahi diogu beharrezko hausnarketa burutzeko, herri honen norabidean pauso garrantzitsuak ematen jarraitzeko aukera baitugu”, ohararazi zuen EHBilduk.

Aurreko legealdia

Azken lau urteetan egindako lanari buruz ere hitz egin zuen EHBilduk: “Gertutasunaren, zintotasunaren, gardentasunaren eta parte-hartzearen alde egindako lana positiboki baloratzen dugu”. Koalizioaren aburuz “aldaketa nabaria” izan da gobernatzeko eran, “modu berritzaile eta irekiak” erabiliz gobernatzeko, eragileekin “harremanak estutuz” eta “parte-hartzeko bideak irekiz”.

Maiatzeko hauteskundeak

EH Bilduren esanetan “berretsi” egin dute egindako lana maiatzaren 24ko hauteskundeetako emaitzek, “aldaketaren alde” jarraitzearen aldeko bozka kopurua igo egin baita: “2011n aldaketaren aldeko bozkek 4.239 izan ziren (EHBildu, EAJ eta LOHP); azken hauteskundeetan 1.034 boto gehiago eskuratu ditu aukera horrek. Bide horretatik jarraitu nahi dutela erakutsi dute herritarrek”.

“PSE-EE eta PPren betiko kudeaketa ereduak ere eskuratu ditu bozka gehiago, baina 85 besterik ez dira izan. Hortaz, udalerrian azken lau urteotan eman den aldaketa emankorren alde bozkatu du herritarren gehiengoak”.

Gaur “BIRziklaTU” proiektuaren saioa

Lasarte-Oriako gazte talde batek, udaleko gizarte hezitzaileekin batera, “BIRziklaTU” proiektua garatu du. Urritik hona, beste herri batzuetako gazteekin batera, baztertuta edo bertan behara utzitako bizikletak berreskuratu, doitu eta margotu dituzte “flota” txiki bat osatzeko.

Era berean, hainbat haur taldek, miniaturazko hiri bat eta bide-seinaleak diseinatu eta sortu dituzte artisau erara birziklatutako materiala erabiliz.

Ekimen irekia

Gaur, arratsaldeko 17:00etatik 19:30era Garaikoetxea-Landaberriko patioan, gazte talde honek hilabete hauetan sortutako guztia herriko haurrei, nerabeei eta familiei erakutsi nahi die.

Horretarako, bizikletan



Herritarrek animatzen dituzte euren bizikletarekin zirkuitoan parte hartzera.

ibiltzeko zirkuitu bat eraikiko dute bide-hezkuntza lantzeko eta konpondutako txirridak probatzeko.

Herritarrek animatzen dituzte bizikletarekin hurbil-

du eta ekimenaz eurekin gozatzera.

Bide batez, sustatu nahi da ekintzarekin bizikletaren erabilera garraiobide ekologiko gisa.

ELKARTASUNA

Misio taldearen eskertza

Lasarte-Oriako Misio taldeak eskerrak eman nahi dizkie afari solidarioetara joaten diren pertsoneri, baita hauetara joan ezin eta laguntza ekonomikoa ematen dutenei ere. Izan ere, haiek gabe ezingo litzateke senidetasun eta sentsibilizazio ekintza hau egin.

Honetaz gain, ikasturte honetan egin diren lau afarietan bildutako diruaren berri ere eman nahi du taldeak. Aurten elizbarrutiko misioen bitartez, 5.531 euro bidali dira hiru proiektuetara: Chaden ekipo elektrogeno baterako, komunitate-halategi baterako eta eskola-materialerako; Boliviako El Alto herrira kaleko haur eta eskolako jangelarako eta Cubako Camagney herrira pertsona adinduen etxebizitzetan konponketak egiteko.

Taldeak uda ostean, herritarren laguntza berri ere izatea espero du.



KANPALDIAK

Guraso bilerak gaur

Ttakunek aurten ere DBHko gazteentzat kanpaldi ibiltariak antolatu ditu. Izena ematea amaituta, gurasoek hitzordua izango dute gaur Manuel Lekuonan. DBH1-2koen txanda 18:00etan izango da eta DBH3-4koena 19:00etan. Bertan kanpaldietako programazioa ezagutzeaz gain gurasoek zalan-tzak argitzeko aukera izango dute.

PROTESTA

Larunbatean Donostian errausketaren aurkako pitada masiboa

Lasarte-Oriako Zero Zabor taldeak herritarrek Donostian egingo den protestan parte hartzera deitzen dituzte. “Azken asteotan, bolo-bolo ibili da txistu eginaz protesta egiteko zilegitasunaren inguruko eztabaida. Arrazoiak daudenean protesta egitea zilegi dela garbi dago. Hurrengo lau urteotarako Gipuzkoako erakunde nagusien gidaritzan hartuko dutenek, karramarroak bezala atzera egiteko asmoa azaldu dute” azaltzen du herriko taldeak.

“Zero zabor bidea utzi eta, zabor poltsa ipar hartuta, errausketaren bideari ekiteko mehatxu egin dute. Gure osasuna, ingurumena eta dirua jokoan dago. Badugu protesta-rako motiborik, badugu txistualdi edo pitada bat egiteko arrazoirik”. Hori dela eta, Donostiako Gipuzkoa plazan errausketari ezetz esateko pitada masibo bat egingo da eta Lasarte-Oria Zero Zaborreko ordezkariak honetan parte hartzera deitzen dituzte herritarrek. Ekimenarekin bat egin dute Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorak eta Eguzki talde ekologikak.

BERTSOLARITZA

Herriko bertso eskolakoak Andoainin

Lasarte-Oriako bertso eskolak Andoainin asteburuan ospatu zen Euskal Jaialdian parte hartu zuen.

Euskal Herriko txoko desberdinetatik iritsitako dantzariak, bertsolariak, trikitilariak, txistulariak, txalapartariak... izan ziren Andoaingo taldekin igandeko jaialdian.

11:00ean hasi zen festa eta goizez, talde desberdinek herrian zehar ibilbideak egin zituzten. Arratsaldean Goiko Plazan talde guztien emanaldia izan zen eta ondoren, dantzaldia.

Herritarrek primeran pasa zuten jai giroan bertso eskola ezberdinetako kideekin.





AKENE zapatadenda
marianzapatadenda@gmail.com



ALBA MODA denda



ALDA complementos



ARITZA mertzzeria
www.merceriaaritza.com



ASMAE zapatadenda
zapatadenda@gmail.com



ANDATZA taberna



ARKUPE taberna
facebook.com/ArkupeTaberna



Osteopatia eta fisioterapia **NOELIA**
info@noelialcalero.com



BAZAR ABREU
bazarabreu@hotmail.com



OKELA harategia
okelaharategia@gmail.com



CARREFOUR EXPRESS
www.carrefour.es



ALDAZ hortz klinika
www.dentalaldaz.com



DONNA boutique



GALIZA taberna



Cafe-Bar **BUENETXEA**



SUKOA burdindenda
f.sukoa@hotmail.com



MAITE BETELU gestoria
www.mbetelu.com



IZARRA bitxitegia
izarrabitxitegia@hotmail.com



Sidreria **ARAETA**
www.araeta.com



TRUMOI taberna




SANTXO taberna




Merkataritza eta zerbitzu elkarte
Asociación de comerciantes y servicios



SANTXO taberna



Cafeteria **AVENIDA**



Bar **IZURDE**



LASARTE SYSTEM
www.lasarte-system.com



ZUMABURU liburudenda
www.libreriazumaburu.com



ZURICH aseguruak
zurichlasarte@gmail.com



BAR YOLANDA



MAUXAREN DENDA



MAYA lenteria



URRUZOLA mertzzeria



NOAOA BIDAIK
www.noaoabidaik.com



LIZARRI optika
optikalizarri@hotmail.com



ORMAZABAL loradenda
ormazaballoradenda@hotmail.es



MAIANE perfumeria
www.perfumeriamaiane.com



MARTIN BERSATEGUI jatetxea
www.martinberasategui.com



ALCAR leihoak
www.ventanasalcar.com



ISU leihoak
ventanas_isu@hotmail.com



VENTANAS SAN MIGUEL
www.ventanassanmiguel.com



ITURBE oinetakoak
iturbezapaterias@gmail.com




CANNES
www.canneslasarte.com



BOZAL GERMAN
www.cuchillosyafiladosbg.com



MULTIOPTICAS
www.multiopticasgipuzkoa.com



Ferreteria Cerrajería **JOSEMA**
cerrajerijosema@hotmail.es



Ziberlokutorioa **AMALUR**
locutorioamalur@hotmail.com

LABURRAK.-

Herritar gazteak fin Gipuzkoako eskolarteko tenis txapelketan



Herriko hainbat tenislari gaztek erakutsi zuten tenisa bermatua duela etorkizuna Lasarte-Orian. Gipuzkoako eskolarteko txapelketa jokatu zuten duela pare bat aste herriko kirolgunean, emaitza oso onak erdietsiz. Landaberriko alebin neskak txapeldun izan ziren taldeka, eta txapeldunorde alebin mutilak. Banakako lehiaketari dagokionez, txapeldunorde izan zen Maddi Altuna alebina, Natalia Gordejoren aurka jokaturako finalean. Infantil mutilen banakakoan berriz, txapela erdietsi zuen Mikel Pelaez herritarrek, Ignacio Astiazaran finalean garaitu ostean.

Bigarren postua eskuratu zuen Raul Gomez Margallok Urumeako 5 milietan

Saso betean dagoela erakutsi zuen beste behin herriko atletak joan den igandean, Urumeako 5 milietan. Bigarren postuan sartu zen helmugara, 24:51ko denbora eginez. Hamazazpi segundo lehenago amaitu zuen lasterketa Unai Señoranez, txapela eskuratu. Marka pertsonala hobetzea lortu du Gomez Margallok aurten, nahiz eta 2014an lasterketa irabazi: 26:36ko denbora egin zuen herritarrek iaz.



Larunbatean aldiz, Zabaletako II. Krosa poltsikoratu zuen Gomez Margallok. Bitik bi edizio irabazi ditu, joan den urtean ere bera izan baitzen garaile.

Buruntzaldea IKTKo igerilariak XXVI. Lasarte Sarian lehiatuko dira bihar, Udal kiroldegian

Hamaika frogatan hartuko dute parte bihar Buruntzaldea IKTKo igerilariak, XXVI. Lasarte Sarian. 12:15ean hasiko da mugimendua igerilekuko kaleetan, 200 metroko estilo frogarekin. Horren ondoren, hainbat estilo eta distantzian ariko dira Buruntzaldea deako neska-mutilak, entrenamenduetan landutako guztia igerilekuan erakusteko gogotsu. Tximeleta, bizkarra eta librea bezalako estiloko igerialdiez gozatu ahaliko dute Udal kiroldegira gerturatzen diren ikusleek. Ordezkaritza zabala izango du Buruntzaldea IKTK, 30 igerilarik baino gehiagok hartuko baitute parte biharko XXVI. Lasarte Sarian.

Hainbat herritarrek hartuko dute parte rugby jokalarri beterranoen topaketetan, Zubietan

Rugby giroa arnastuko da Zubietan asteburu osoan zehar, Europa osotik etorritako hainbat jokalarri beterranoen topaketak direla eta. Bertan egongo dira hainbat herritar ere: Juantxo Prieto, Manu Pelaez, Ritxar Espinosa, Gorka Fernandez eta Jose Mari Nuñez. Hainbat partidu jokatu dituzte ostiraletik igandera. Bi urtean behin egiten dira gisa honetako topaketak.

KIROL AGENDA.-

TRIATLOIA

Larunbata 13

Getaria, Malkorbe hondartza, 14:00etan
Zarauzko triatloia 29. edizioa
jokatu da larunbatean, erdi distantzian. 2,9 kilometro egingo dituzte igerian, 81 bizikletaz eta 20 korrika.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 13

Herriko txapelketa, finalurrekoak.
Udal kiroldegia, 17:15ean
Insausti - Txindoki
Udal kiroldegia, 18:15ean
Izkiña - Bar El Punto

SQUASH

Larunbata 13

Lasarte-Oriako Udal kiroldegia, 16:00etan
Lasarte-Oriako txapelketako finalak
jokatu dira Udal Kiroldegian.
Kontsolazio finala eta 3. eta 4. postuak
lehenengo, eta final handia ondoren.

PILOTA

Igandea 14

Aginagako Udal frontoia, 11:00etan
Intza KEko pilotari Aritz Solano
Pagazpeko Ander Katalinarean aurka
ariko da, Udaberri txapelketan, eskuz
banaka 4 terdian.

TRIATLOIA.-

Herriko ordezkariak zabala bihar Zarauzko triatloian

Abendutik ari dira prestatzen biharko proba Saiatuz taldeko triatletak; "denboraldiko helburu nagusia" da haientzat



Saiatuz taldeko sei triatletak hartuko dute parte bihar Zarauzko triatloian.

Joan den urteko abendutik gogor entrenatzen aritu ostean, egindako lana ur zein errepidean erakusteko ordua da Saiatuz taldeko kideentzat. 6 ordezkari izango ditu guztira taldeak Zarautzen bihar eta 7 Lasarte-Oriak, Maria Mendibe herritarra ere irteera lerroan izango baita. "Denboraldiko lasterketa nagusia" izango da biharkoa horietako askorentzat, eta helburuak, argiak: lasterketaz gozatzea eta bukatzea.

IÑIGO GONZALEZ

Ramon Altuna, Imanol Arteaga, Zigor Gallardo, Miguel Angel Fernandez, Enaitz Ibarburu eta Asier Gorostegi. Bihar Zarautzen izango diren Saiatuz taldeko sei triatleten izenak dira. Horiez gain, taldekoa ez den arren, Maria Mendibe herritarra. Herriko 7. ordezkaria. Artikulu honetan bakarrik ez, Zarauzko triatloiko sailkapen ofizialean izen horiek irakurtzea ere ez legoke gaizki. Guztiz kontrako, ezin hobea litzateke, gauzak ongi joan direnaren seinale.

Horretarako, Zarauzko erdi distantziako triatloia osatu beharko dute lehenengo. 2,9 kilometro igerian, 81 bizikletan eta 20 lasterka. Zifrez hitz egiten hasita, 29. edizioa du aurten kostako herriko proba entzutetsuak. Proba, Innevento Sports eta Zarauzko, Gipuzkoako eta Euskadiko Triatloi Federazioek antolatu dute.

Getariako Malkorbe hondartzatik irteera dira triatletak, bi txandatan: 14:00etan emakumezkoen txanda izango da eta handik ordu laudenera ekingo diote triatloiarri gizonzkoek.

Malkorben izango da baita ere Asier Gorostegi, Saiatuzeko taldekideekin batera. Luze eta zabal hitz egin dugu herritarrekin, probaren atalei eta Saiatuz taldearen helburu, egoera eta etorkizuneko erronkei buruz.

"Zarautz, Zarautz, Zarautz"

Hitz hori daukate buruan Altunak, Gallardok, Fernandezek, Arteagak, Ibarburuk eta Gorostegik. "Biharkoa denboraldiko proba nagusia da guretzat, abendu-urtariletik daramagu entrenatzen", aipatu du Gorostegik.

Entrenamendua. Biharko triatloiarri ahalik eta baldintza onenetan aurre egiteko berme eta errezeta bakarra. Lehenengo oztipoa, itsasoa: "Ikusi beharko da zer moduzkoa den eguraldia. Itsasoak errespetua ematen du beti eta metro bateko olatuak daude aurreikusita, ea nola joaten den".

"Bizikletaz egin beharreko zatia gogorra da oso, Aiako eta Txurrukako aldapengatik batez ere. Meagaseko gaina bi aldiz igoko dugu. Eguraldiak izan dezakeen eragina ere hartu beharko dugu kontutan, euriaren eraginez errepidea irristakorra egon daiteke eta", azpimarratu du Gorostegik.

Bizikleta utzi eta lasterka egiteko oinetakoak jantziko dituzte triatletak ondoren, 20 kilometroko ibilbidea osatu eta proba amaitzeko. "Ikusi beharko da nola iristen garen puntu horretara, erritmoak baditugu buru barruan baina batzuetan hanke ez dute behar bezala erantzuten", dio Saiatuzeko triatletak.

Gozatu... eta bukatu


Saiatuz ordezkariak duten triatletak helburu desberdinak dituzte biharko proba begira, Gorostegik esan duenez. "Imanolek eta Ramonek badaramatzate urte batzuk triatloien munduan, eta marka egitera joango dira. Besteok ere begiratu diogu erlojuari, baina helburu nagusiak gozatzea eta triatloia bukatzea izango dira".

Biharko probarako baditu helburu eta erronkak Saiatuz taldeak, eta baita datorren urterako ere: Triatloi talde propio bat eratu nahi dute, estatutu eta guzti. "Txirrindulari talde bat" da Saiatuz izatez, Gorostegik nabarmendu duenez. "Lasarte-Oriako triatloi talde propio bat eratu nahi dugu, eta orain babesle eta laguntzaile bila gabilta".

Horren harira, Zarautzen helmuga zeharkatu eta gero Avenida tabernara joango dira afaltzera Saiatuzeko kideak. Indarrak giro ederrean berreskuratzeaz gain bezar, datorren urterako gauzak lortzen ere hasiko dira triatletak. Itsasoa eta errepidean bakarrik ez, hortik kanpo ere makina bat lan egin beharko dute. Gogo eta ilusiorik behintzat ez zaie falta.

Agenda

Gaur, 18:30ean Tximistarreta parkea



Gure esku dago taldearen jaialdia

Aurreko astean egindako zozketan sarituek lagun batekin globoan ibiltzeko aukera izango dute gaur. Tximistarreta parketik aterako da globoa 18:30etatik aurrera eta herri gainetik hegan egingo du. Baina globo irteera honetaz gain, ekimeneko kideek jaialdi txiki bat antolatu dute Tximistarreta parkean bertan. Honetan, Donostian ekainaren 21ean Lasarte-Oriako tartea betetzeko falta diren oihalak margotuko dira eta hurbiltzen diren herritar, tutore eta saretuek txokolatada goxoa dastatuko dute.

Kobra (funkys-a manikurak), Meamorphosis (ohial poltsak), Bikändi (arropak). Merkatua arratsaldeko 20:00ak arte izango da. Egun guztian zehar dj-ak egongo dira azoka girotzen.

Irteera

DONOSTIARAKO BIDEGORRIA

Larunbata, 11:00etan

Herritar talde batek Lasarte-Errekalde bidegorri berriaren herri-inaugurazioa antolatu du eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egiten die. 11:00etan Eusko Treneko geltokitik oinez zein bizikletaz abiatuko da txangoa. Helburua da poza agertzea bidegorri berriatik eta, aldi berean, hemendik aurrera bide beretik pauso gehiago eman behar direla aldarrikatzea.

Musika

MANUEL LEKUONA

Astearte 16 eta Asteazkena 17, 18:00etan

Udal Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte guraso eta lagun aurrean.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

3. Batukada Topaketako argazki bilduma. Horien artean, Dinbi Bandak antolatutako argazki lehiaketako lan sarituak ikus daitezke.

Usurbil

Musika

SUTEGI

Ostirala, 19:30ean

BiHozkada taldearen kontzertua. Honetan batera jotzen du Oihan Agirretxe herritarrek. Sarrera doan.

Lasarte-Oria

Kukuka Antzerki eta Dantza Astea

MANUEL LEKUONA

Ostirala, 22:00etan

Kukuka Antzerki eta dantza eskolako helduen taldeak "Egunero ringingi" antzezlan eskainiko dute. Sarrera 1 euro.

Igandea

Dantzaz Blai eguna:

12:00etan, euskal dantza eta euskal dantza-sorkuntza taldeen emanaldiak.

19:00etan, dantza garaikide taldeen txanda izango da.

Sarrera 1euro.

XXII. Rocioko Erromeria

ATSOBAKAR PARKEA

Larunbata

12:00, Erromeria hasiera.

14:30, Herri bazkaria.

17:00, Gonbidatutako Andaluzia etxeetako koru roziero ezberdinen emanaldia.

19:30, 'Alegría de la Sierra' taldearen emanaldia.

Igandea

11:30, 'Semblante Rociero' koruak girotutako meza rozieroa Arantzazuko parrokiaren.

12:30, Rocioko Ama Birginaren irteera parrokiatik Atsobakar parkera.

13:45, Autoritate eta gonbidatuei

ongietorri ekitaldia izango da.

15:00, Paella jana.

16:30, Semblante Andaluz-eko taldeen eta gonbidatuen emanaldien hasiera.

19:30, 'Amigos del Sur' taldearen emanaldia.

20:30, Ama birginari agurra.

21:30, Festa amaiera.

Azoka

SIGLO20

Igandea, 9:00etan

Azoka berezia, honetan izango dira; Blami (Artistaren obra salgai), Yolanda Joyita y las piezas sueltas (bitxiak), Latonta (Bitxiak), Homefabrik (birziklapena eta papergintza), Gora! Kamisetak (kamiseta serigrafiatuak), Planeta

Herritarren txokoa

Zabaletako Jaietako zozketa

Zabaletako jaietan Goiegi jatetxean lau afari zozketatu ziren. Zenbaki irabazlea 3395 da. Onuradunak hilabete bat du saria eskuratzeko. Zabaletako Jaietako batzordeko kideekin harremanetan jarri behar da, 943 370 433 edo 943 370 566 zenbakietan.

Zikiro afariko txartelak

Badatoz San Pedroak eta festa egitarauaren baitan jende asko biltzen duen hitzordua izan ohi da Zikiro afaria. Aurtengoan ostiralean, ekainaren 26an izango da 22:00etan Okendon.

Afari hau Ttakun elkarteak antolatzen du eta aurrez txartelak erosi behar dira. Dagoeneko Ttakunen bulegoan eta Jalgin daude eskuragarri. Afariaren prezioa 20 eurokoa izango da eta ohiko menua dastatuko dute parte hartzaileek, entsalada, zikiroa, postre gozoa, edaria eta kafea barne. Antolatzaileek txartelak ahalik eta lasterren erostea gomendatzen dute.

Lasartetik Esloveniara!!

Lasarte taldea, aurtien ere, udako bidaia prestatzen ari da. Bisitatuko dituzten lekuak: Bled, Maribor, Ljubljana, Postjonako kobazuloak, Istria... Interesa duzuenok deitu telefono honetara: 661 41 78 53 Plaza mugatuak.

Santa Ana pintxoak

Aterpeak Santa Ana egunean, uztalak 26, Santa Ana pintxoak egitasmoa antolatu nahi du iaz bezala. Honetan parte hartu nahi duten tabernek harremanetan jarri beharko dute Aterpeako kideekin 637 95 50 30 telefonoan edota itziarirurzun@hotmail.com bidez.

Sorgin dantza zapiak

Sorgin dantzako zapiak salgai izango dira entseguetan, Jalgin edota Ttakunen. Kotoizko zapiak 9 euroko prezioan, akrilikoak 4 eurotan.

Eskutitza

Lasarte-Oriatik ere atez atekoa kendu nahi omen du ltxasok

San Marko Mankomunitateko presidente Denis ltxasok adierazi duenez (<http://www.diariovasco.com/gipuzkoa/201506/05/pasaia-sera-primer-municipio-20150605122847.html>), uztailaren 1etik atez atekoa kenduko dute Pasaian, eta gero beste hainbat herritan, esaterako, Lasarte-Orian.

Alabaina, Lasarte-Orian ez dago atez atekorik. Are gehiago, 5. edukiontzia ere ez dago, nahiz eta ltxasoren PSEko alderdikide den Jesus Zaballosek iazko apirilean 2014an zehar ezarriko zela zala-parta handiarekin agindu zuen arren.

Ez du agindutakoa bete, bistan da.

ltxasoren hanka-sartzea barre egiteko modukoa litzateke, baldin eta atez atekoaren inguruan

egin den manipulazioaren adibide berri bat ez balitz.

EGUZKI

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Antzerkia izan da nagusi aste honetan. Kukuka antzerki eta dantza eskolako talde ezberdinek haien antzezlanak erakutsi diete lagun, ikaskide eta senideei. Milaka abentura bizi izan dira Manuel Lekuonan.



Zubietako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako taldeak ere izan dira aste honetan.

Antzerkiaz gozatuz

Dantzaz Blai! egunarekin amaituko da antzerki eta dantza astea

Kukukaren 13. antzerki eta dantza astea amaitzen da. Gaur helduen taldeak antzerkia eskainiko du eta igandean dantza taldeez gozatu ahalko da. Asteazkenean zehar Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetako, zein Zubietako gazteetako haien lanak eskaini dituzte, baita gazteek ere.

TXINTXARRI

Bart Kukuka antzerki eta dantza eskolako gazteen taldeak 'Pentadrama' lana eskaini zuten.

Asteazkenean zehar artzaiak, lapurrak, ikerlariak, mimoak, malabaristak... denetarik izan dira Manuel Lekuonako ohol-tzan.

Astelehenean, indarrez hasi ziren, LH6 mailako eta Zubietako LH4-6 mailako

gazteak. 'Mutilik ez dago, ala?' eta 'Zirkoko misterio iluna' lanak ikusi ziren.

LH3 eta LH4koen txanda izan zen asteazkenean. Manuel Lekuonara hurbildu zirenek besteak beste, 'Mimo', 'Artzain gezurtia', 'Bahiketarrak' edo 'Mimoen zirkoa' lanekin gozatu zuten.

Atzo berriz, ikastetxe ezberdinetako LH1 eta LH2koek 'Ur magikoa', 'Piratak eta altxorrak', 'Itsasoaren

zaindariak', 'Euririk ez duen lurraldea' eta 'Abenturaz blai' eskaini zituzten.

Dantza jaialdia

13. antzerki eta dantza astearen azken egunetan gaude.

Gaur helduen taldearen 'Egunero ringingi' ikusi ahalko da.

Bestalde, igandean dantza izango da protagonista. Bi saioetan txiki, gazte, zein helduek haien trebezia erakutsiko dute.

Eguerdiaren, Euskal dantza eta euskal sorkuntzako taldeak izango dira ohol-tzain.

Eta asteari amaiera emateko dantza garaikide emanaldia izango da arratsaldeko 19:00etan.

Udal dantza eskolaren erakustaldi bikaina

Ikasturtea amaitzen da eta horregatik, Udal Dantza eskolako lagunek kurtso honetan ikasitako erakutsi zuten asteazkenean.

Aretoa bete zuten guraso eta senideen aurrean, doinu ezagunak dantzatu zituzten talde ezberdinek.

Labezomorro eta tximeleta, Heidi eta bere lagunak koreografiak eskaini zituzten txikiak.

Piratas del Caribe edo 101 dalmatxoak filmetako doinuak edo Bach, Chopin, Pachebel edo Tchaikovsky musikari klasikoekin lanekin ere dantza ederrak erakutsi zituzten gazteek.

Aurrematrikula

Bestalde, gaur da 2015-2016 ikasturterako aurrematrikula egiteko azken eguna eta Manuel Lekuona kultur etxeko bigarren solairuan egin behar da.



Udal Dantza eskolako ikasle taldeek ikasturte honetan zehar ikasitakoa erakutsi zuten hainbat koreografiatan.